






7.2.- LURRALDE – INGURUMENA	
7.2.1.	ARTZAIN EGUNEAN PARTE HARTZEKO ESKABIDEA
ZER DA? ZERTARAKO BALIO DU?	<p>Urtero, iraileko hirugarren igandean egiten den Artzain Eguneko jarduera batzuetan parte hartzeko eskabidea; .</p> <ul style="list-style-type: none"> • Baserriko produktuen erakusketa eta salmenta. • Artisautzako produktuen erakusketa eta salmenta. • Latxa arrazako ardiak probintziarteko lehiaketa. • Gazta lehiaketa. <p>AURKEZTEKO EPEA: Uztailaren 1etik Azoka ospatu baino 10 egun lehenago arte.</p>
NORK ESKA DEZAKE?	<p>Interesdunak berak edo bere legezko ordezkariak.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Baserriko produktuak: ustiapen-zenbakia duten, dagokion Gizarte Segurantzaren erregimenean alta emanda dauden eta kuotaren ordainketa egunean duten nekazariak eta/edo abeltzainak, osasun-erregistroa eta, beharrezkoa bada, manipulatuzailearen txartela dutenak. • Artisau-produktuak: artisauak • Ganadu-lehiaketa: Arabako Lurralde Historikoko edo Urduña eta Orozko udalerrri bizkaitarretako artzainek parte hartu ahal izango dute. • Gazta-lehiaketa: ezinbestekoa da Arabako artzaina izatea eta ardi latzez bakarrik osaturiko artaldea izatea (gutxienez 100 abelburu).
AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK	<p>Eskabide orokorra, behar bezala beteta; bertan, jarraian zehazten diren lehentasun-irizpideei buruzko informazioa jasotzen da.</p> <p>Baserriko produktuak: dagokion Foru Aldundiaren nekazaritza- eta/edo abeltzaintza-ustiapenaren erregistroaren kopia; merkaturatutako produktuen osasun-erregistroaren kopia (prestatuak edo eraldatuak); dagokion Gizarte Segurantzaren erregimenaren kuotaren ordainagiriaren kopia; elikagaiak manipulatzeko txartelaren edo gaitasunaren kopia, beharrezkoa bada.</p> <p>Gazten kasuan latxa ardiaren esne gordinarekin eginda daudela egiaztatu behar da. Halaber, kaseinari dagokion plaka eta Osasun Ministerioaren APPCC (puntu kritikoaren eta kontrol-puntuaren analisia) izan behar dituzte.</p> <p>Lehentasuna izango dute Goi Nerbioi eskualdetik datozenek eta ustiategiak ekoizpen ekologikoan alta emanda dutenek.</p> <p>Artisau-produktuak: lehentasuna izango dute, hurrenkera honetan, artisauen erregistro ofizialean izena emanda daudenean, JEZen alta emanda daudenean, nekazaritzako eta abeltzaintzako sektorearekin eta euskal sektore tradizionalari lotuta dauden produktuak dituztenek eta Goi Nerbioi eskualdetik datozenek.</p>



	<p>Ganadu-lehiaketa: lehiaketara aurkezten diren animalia guztien arrakaden zenbakia, legez ezarritako osasun-eskakizunak bete beharko dituztenak. Abeltzain bakoitzak gehienez 5 ardiko lote batekin eta 5 arkume eme eta 1 arkume ar eta 1 ahariko lote batekin lehia daitezke.</p> <p>Gazta-lehiaketa: egiaztatzea ustiategian bertan eginda daudela, latxa ardiaren esne gordinarekin, bai eta kaseinako plaka eta osasun-erregistroa edukitzea ere; gazteek gutxienez bi hilabeteko heldzea izango dute.</p>
AGIRI OSAGARRIAK	<p>https://udala.amurrio.eus/eus/zerbitzuak/nekazaritza-abeltzaintza-eta-mendiak/azokak-eta-ekitaldiak</p> <ul style="list-style-type: none"> • <u>Nekazaritza-azoketan parte hartzeko eskaera</u> • Ardi lehiaketan parte hartzeko Eskabidea.
IZAPIDE BIDEAK	<p> Egoitza elektronikoan: https://udalenegoitza.araba.eus/portal/entidades.do?error=-1&ent_id=4&idioma=1</p> <p>Gainera, baliabide elektronikoak erabiltzera behartuta ez dauden pertsona fisikoentzat:</p> <p> Aurrez-aurre: Udaletxea. Udal erregistroa - beheko solairua, ezkerrean (Juan de Urrutia z/g. 01470 - Amurrio) Ordutegia: Neguan: astelehenetik ostiralera, 7:45etik 15:00etara. Uztailaren 1etik irailaren 15era: astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.</p> <p> Posta arrunta: (Juan de Urrutia z/g. 01470 - Amurrio).</p> <p>Eskaera telematikoki edo aurrez aurre aurkezteko moduari buruzko edoze in zalantza edo argibidetarako, aukera hauek daude:</p> <p>a) 945 89 11 61 telefonora deitu b) Bidali mezu elektronikoa helbide honetara: amurrio@amurrio.eus</p>
PREZIO	<p>Ganadu-lehiaketa: artzainak ordaindu beharko ditu abereen garraiotik eratorritako gastuak. Dena den, antolatzaileek garraiorako diru-laguntza emango dute: 80 euro ardi loteko eta 25 euro ahariko. Saririk jasotzen ez duen artzain bakoitzak 20 euroko parte-hartze dieta jasoko du, baina, horretarako, gutxienez bi ataletan parte hartu beharko du.</p> <p>SARIAK atal bakoitzeko, 1 ahari - 5 arkume emeren eta 1 arkume arren lotea - 5 ardiren lotea:</p> <p><u>Lehenengo saria:</u> 180 euro eta garaikurra. <u>Bigarren saria:</u> 150 euro.</p>



	<p><u>Hirugarren saria</u>: 120 euro.</p> <p><u>Laugarren saria</u>: 90 euro.</p> <p>Gazta-lehiaketa:</p> <p><u>Lehenengo saria</u>: 300 euro eta garaikurra.</p> <p><u>Bigarren saria</u>: 250 euro.</p> <p><u>Hirugarren saria</u>: 200 euro.</p>
EBAZTEKO ETA JAKINARASEKO AURREIKUSITAKO	<p>Aurreikusitako epea: azoka egin aurreko astearterako.</p> <p>Gehieneko legezko epea: ez dagokio</p> <p>Administrazio-isiltasunaren ondorioak: ezezkoa.</p>
APLIKA DAITEKEEN LEGERIA	<p>Tokiko Gobernu Batzarrak urtero onartzen dituen azokaren oinarriak.</p>
PROCEDIMIENTO TRAS LA SOLICITUD	<ol style="list-style-type: none"> 1. Eskaera-orriak eta agiriak jasoko dira. 2. Aurkeztutako agiriak egokiak diren egiaztatuko da. 3. Izena emateko epea amaitutakoan, dauden postuak eta gaitasuna kontuan hartuta, lehentasuna emango zaio, dauden irizpideen arabera, eskatzaile bakoitzaren parte-hartzeari. 4. Onartutako eta baztertutako parte-hartzaileen zerrenda onetsiko da. 5. Eskatzaileei parte hartu dezaketen ala ez jakinaraziko zaie, baita parte hartzeko baldintzak zein diren ere. 6. Animalien jabeei lehiaketaren araubidea eta bete behar dituzten osasun- eta ongizate-arauak bidaliko zaizkie erakusketaren aurretik. 7. Parte-hartzaileen agiriak ENBri bidaliko zaizkio, kontrola egin dezan. 8. Azokaren egunean, egiaztatuko da parte-hartzaileek markatu dituzten eskakizun eta baldintzak betetzen dituztela. 9. Lehiaketak eginda eta epaimahaiaren epaia jaso ondoren, sariak banatuko dira azokaren egunean bertan. 10. Azokan jasotako agirien bidez, txostena egingo da, parte-hartzaileei sariak eta dietak ordaintzeko.
OHARRAK/AZALPENAK	<p>Aurkeztu behar diren agirien fotokopiak doan egin ahalko dira Udalaren beraren bulegoetan.</p> <p>Baserriko produktuak: berariaz DEBEKATUTA DAGO BIRSALMENTA. Antolatzaileek parte-hartzaileen esku jarriko dituzte produktuak erakusgai jartzeko postuak (saltzaileko postu bakarra), eta antolatzaileen aburuz bidezkoena den eran banatuko dituzte. Produktuak erakutsi eta saldu nahi dituzten parte-hartzaile guztiek produktu bat edo sorta bat eman beharko diete antolatzaileei, eta haiek euskal jantzi tradizionalaz jantzita doazen herritarren artean zozkatuko dituzte produktu horiek. Antolatzaileek parte-hartzaileei postua egoki deritzen eran apaintzeko gomendatzen diete, eguna are bereziagoa izan dadin. Bestalde, saltzaileek nahitaez jantzi beharko dute euskal jantzi tradizionala.</p> <p>Artisau-produktuak: berariaz DEBEKATUTA DAGO BIRSALMENTA. Antolatzaileek parte-hartzaileei postua egoki deritzen eran apaintzeko</p>





	<p>gomendatzen diete, eguna are bereziagoa izan dadin. Bestalde, saltzaileek nahitaez jantzi beharko dute euskal jantzi tradizionala.</p> <p>Ganadu- Lehiaketa:Atal bakoitzean gehienez 20 lote onartuko dira, eta lehentasun a izango dute eskualdeko abeltzainek eta nagusiki abeltzaintzakoak diren ek. Antolakuntzak beretzat gordetzen du ezarrita dauden sariak eta trofe oak aldatzeko eskubidea, bai eta abeltzainen edo ganaduzaleen aurre-hautaketa egiteko eskubidea ere. Epaimahaiak hala eskatuz gero, hutsik d eklaratu ahal izango ditu hala irizten dituenak, edo aparteko sariren bat e man ahal izango du.</p> <p>Osasun eta ongizate arauak, animalien garraioan zein egonaldian, agintari tza eskudunak, Arabako Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuak, ezarritak oak izango dira. Garraio-ibilgailuren batek edo animaliairen batek eskatutako baldintzak beteko ez balitu, EZ GAI deklaratu lirateke eta ezingo luke esparruan sartu. Antolatzaileek EZ dituzte ordainduko erakusketan sartzeko egokitzat jo EZ diren animalien dietak, arrazoiak jabearen ardura direnean. Ganadua gar raiatzeaz jabea arduratuko da, eta, beraz, ezarritako dieta kobratuko du (egokitzat jotzen badira).</p> <p>Gazta- Lehiaketa: Gaztaren baten jatorriari buruzko zalantzarik izanez gero, anto latzaileek eskubidea izango dute beharrezko ikerketak egiteko neurriak ha rtzeko.</p>
IZAPIDETZEN DUEN UNITATEA	<p>NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA MENDIAK ETA ARLOA.</p> <p></p> <p>Edozein zalantza izanez gero, deitu Nekazaritza, Abeltzaintza, Mendiak et a Ingurumena atalera: 945.89.11.61 (Ext. 181)</p> <p>@ aalcalde@amurrio.eus</p>

